

Ikastetxe pribatuetako guztizko gastua % 11,7 gehitu zen 2015-2018 aldian Euskal AEn

Administrazio Publikoak ikastetxe pribatuen diru-sarrerara arrunten % 62 lagundu zituen


Euskal AEko irakaskuntza pribatuko sarea 220.000 ikasleri baino gehiagori zerbitzuak eskaintzen dizkieten 472 ikastetxek osatzen dute, eta 2018. urtean 1.175 milioi euroko gastua izan zuen, hau da, BPGren % 1,5 eta 2015aren aldean % 11,7ko igoera, Eustatek landutako datuen arabera. Hazkunde hori % 3,7koa da urteko tasa metatuan.

2018ko ekitaldian, gastu arrunta 1.086 milioi eurokoa izan zen (% 7ko igoera 2015 eta 2018 artean), eta urteko batez besteko tasa metagarria % 2,3koa izan zen. Gastu hori guztizkoaren % 92,4 izan zen, eta langileentzako erabili zen gehienbat (% 73). Bestalde, inbertsioa, 89 milioi eurokoa izan zena, nabarmen handitu zen (% 24), aurreko aldian gertatu zen beheranzko joera aldatuz.

Funtzioen arabera gastu arruntaren barruan, azpimarratzekoa da irakaskuntza-funtzioa, 972 milioi euroko gastuarekin % 8 handitu baitzen azken hiru urtekoan (% 2,6 urtean); aldiz, zerbitzu osagarrien gastua, 94 milioirekin, pixka bat murritzitu zen (-% 0,05).

Zentro-motari erreparatuz gero, unibertsitatearen aurreko mailetak zentroak izan ziren sektoreko gastu osoaren zatirik handiena bildu zutenak (% 86); unibertsitate-mailako ikastetxeak, berriz, gastuaren % 12 izan ziren, eta arte-irakaskuntzakoak, berriz, % 2.

Euskal AEko zentro pribatuetako irakaskuntza gastuaren bilakaera (milaka euro)



Iturria: Eustat. Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

2017-2018 ikasturtean, unitate bakoitzeko irakaskuntza-gastua gehiago handitu da ikasle bakoitzeko gastua baino

2015 eta 2018 artean, ikasle bakoitzeko irakaskuntza-gastua % 3 hazi zen berriro, 2009 eta 2015 artean ikusitako beheranzko joera hautsiz. Bestalde, unitate bakoitzeko gastua ere hazi egin zen aztertutako aldian, % 5,8 guztira. Urtero, ikasle bakoitzeko gastua ia % 1 hazi zen urteko batez besteko tasa metatuan, eta % 1,9 unitate bakoitzeko gastua.

Bestalde, **eskola-unitateko edo taldeko irakaskuntza-kostuak (1)**, irakaskuntza-mailaren arabera, 74.108 € eta 90.019 € izan ziren, hurrenez hurren, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako mailetan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) 115.898 € izan ziren, Lanbide Heziketan (LH) 98.281 € eta Batxilergoan 137.609 €. Helduen Irakaskuntzan (HI) unitateko gastua 29.673 € izan ziren.

Ikasle bakoitzeko irakaskuntza-kostuak 4.034 € izan ziren Haur Hezkuntzan, 4.124 € Lehen Hezkuntzan, 5.268 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 5.163 € Batxilergoan, 5.013 € Lanbide Heziketan eta 1.286 € Helduen Irakaskuntzan (HI). Gainera, Unibertsitatean, ikasle bakoitzeko gastua 5.429 €-koa izan zen, eta Arte Irakaskuntzetan, 1.506 €-koa.

Diru-sarrerei dagokienez, zentro pribatuen **diru-sarrera osoa** 1.149 milioi eurokoa izan zen, zeinetatik % 99,6 diru-sarrera arruntak izan baitziren, eta gainerako % 0,4a kapital-sarrerak. Diru-laguntza publikoak dira (% 62) diru-sarrera arruntaren iturri nagusia, aurreko ikasturteetako proportzioari eutsiz; ondoren, kuotak daude (diru-sarreraren % 34), eta horien barruan irakaskuntzakoak (% 22) eta zerbitzu osagarrietakoak (% 9,3).

Guztira, **kuotengatiko diru-sarrerak** 389 milioi eurokoak izan ziren, zeinetatik irakaskuntzako kuotak guztizkoaren % 65,6 baitira, jantokikoak % 19, garraiokoak % 5,6, eta jarduera osagarriei dagozkienak familien ordainketaren % 7; gainerakoa beste zerbitzu batzuegatiko kuotei dagokie.

Gastu osoa eta irakaskuntzako gastua, ikasleka eta unitateka (*). 2003-2018 aldian

	2003	2005	2007	2009	2012	2015	2018	Aldakuntza-tasa (%)	
								2018/2015	Urteko batez besteko metagarria
									2018/2015
Guztizko gastua (mila €)	706.695	798.624	889.011	1.062.383	1.043.941	1.052.497	1.175.342	11,67	3,75
Ikasleko irakaskuntza-gastua (€)	3.143	3.539	3.933	4.443	4.345	4.277	4.404	2,97	0,98
Gelako irakaskuntza-gastua (€)	66.708	71.097	79.425	89.479	86.866	89.966	95.182	5,80	1,90

(*) Irakaskuntza-kosten barruan sartzen da ikastetxearekin kontratu-harremanik ez duten eta ordainsaririk jasotzen ez duten irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuaren zenbatespena

Iturria: Eustat. Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62